

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

##### Alkatearen dekretua

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua arabera — Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legeak emandako idazkuntza —, toki korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte beren karguetan jarduteagatik, baldin eta arduraldi eskusiboarekin badihardute, baita arduraldi partzialarekin egiten dutelarik ere, hala eskatzen duten ardurak direla eta. Udalbatzako lehendakariari dago-kio hala xedatzen duten ebazpenak ematea, horretarako osoko bilkuran hartutako erabakiak betearaziz.

Era berean, Toki administrazioa arrazionalizatzeari eta haren iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen 1. artikulua 7/1985 Legeari gehitutako 75.3 j) artikuluan, mugatu egiten da arduraldi eskusibo izan dezaketen kideen kopurua.

Ikusirik 2015ko ekainaren 30ean egindako bilkuran Gasteizko udalbatzak honako hau erabaki zuela:

“2015eko uztailaren 1etik aurrera, egun hori barne, arduraldia berekin eramango duten kargu korporatiboak zehaztea:

I. Arduraldi eskusiboa izango dute alkateak eta udal gobernuko kideek, baita udal taldeen eledunek ere. Alkatearen ordainsaria 79.398,00 eurokoa izango da urtean, eta horren arabera kalkulatu dira alkateordeenak (68.877,00 euro), zinegotzi ordezkarienak eta taldeek udalbatzan dituzten eledunenak (64.775,00 euro) eta arduraldi berezia duten zinegotzienak (60.674,00 euro).

II. Halaber, Eledunen Batzarrean adostutako irizpideei jarraiki, arduraldi eskusiboan bete ahal izango dituzte beren karguak aldi berean honako ardura hauetako hiru baino gehiago dituzten udalbatzako kideek:

— Udalbatzaren batzorde iraunkorretakoren bateko edo Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziko lehendakaria edo lehendakariordea.

— Kontratazio Mahaiko titularra edo ordezkoa.

— Udal erakunde autonomo bateko zuzendaritza kontseiluko kidea izatea

— Bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean.

48.286,00 euroko ordainsaria izango dute.

III. Egoera horretan ez daudelako arduraldi eskusiborik ez duten udalbatzako kideek, ardura bat baino gehiago badute —udalbatzaren batzorderen bateko lehendakaria edo lehendakariordea, edo bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean—, baina hiru gaintitu gabe, arduraldi partziala izan ahalko dute, eta aurreko atalean adierazitako ordainsariaren ehuneko 75 jaso.

IV. Ez arduraldi eskusiborik, ez arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek dietak —udalbatzak erabakitzen dituen diru-kopuruak— jasoko dituzte kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik.”

Kontuan izanik 2016ko urriaren 19an PP taldearen bozeramaileak sinatutako idazki bat aurkeztu zela Udaltzaren Idazkaritzan, eta bertan eskatzen dela Alfredo Iturricha Yániz jaunak arduraldi eksklusiboarekin jardun dezala zinegotzi-karguan, gorago aldatu den udaltzaren ekainaren 30eko erabakiaren II. atalean zerrendatzen diren arduretako hiru baino gehiago bere gain hartuak dituen eta horrekin legez ezarritako muga gainditzen ez denez.

Xedatu dut

Udalbatza honetako zinegotzi Alfredo Iturricha Yániz jaunak bere zinegotzi-zereginak arduraldi eksklusiboan egin ditzala urriaren 19tik aurrera, eskatu bezala.

Erabaki hau osorik argitaratuko da ALHAOn eta Udalaren iragarki taulan, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 19an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*